

IRUKOITZA

I

"EUSKERA? ILKO BALITZ OBE, EZ BAI DU EZERTAKO BALIO...!"

Baserritafa zan bera.

Baserrian azi ta baserrian bizi.

Euskeraren goraltzak egiten ari giñan bere aurrean: Europa'ko izkuntzarik zaarrena zala, bere mamian jakinduriaren aberastasun ugariak zituala...

— "Euskera...? Ilko balitz obe, ez bai du ezertako balio...!"

Orrela erantzun zidan nik izketan bukatu baño lenago.

Ez dituk ik, gizajo orrek, erru guztiak.

Ez, orixe!

Ire buru-barruan sartu nai nintzake unetxo batean, barru ortatik Euskerarekiko zeak nola ikusten diran jakiteko.

Aleginduko naiz:

Amaren aotik ikasitako Euskera baserri, inguruan ibiltzeko serbitu dizu, baño errira joatean, milla moduko artu-emanetan ez dizu serbitzu aundirik egin...

*

Kultura gai guztiak, maixu erdaldunak, erderaz ematen dizkiote eskolatan ume euskaldunari...

Zu ere, nere baserritar ori, tarteko ziñan. Nekeak ugari eraman ondoren, kulturarik ez buruan, goxotasunik ez biotzean...

Zure iritxirako Euskerak zuan erru onen kulpa guztia.

Baña etzan Euskeraren errua...!

Ez, orixe!

Gizarteak du errua.

Ume euskaldunarekin egiten dan pekatu ikaragarriaren errua ez du Euskerak, Euskera bastartzen duan gizarteak baño...Kulturagaiak ume euskaldunari erderaz ematen dion gizarteak du erru ikaragarria.

Nungo Pedagogiak erakusten ote astakeri ori!?

Arritzeko al da orrela tratatutako umeak Euskera gorrotatzen astea?

Baserrian automobil txiki baten bearra zeukezuten.

Zu ziñan etxeko maiorazgoa ta txofer ikastera kalera jetxi ziñan.

Txofer ikastolan erdera berriz ere.

Tutik entenditzen ez ta buruz ikasi ziñusten galdera ta erantzun guztiak. Amabost eguneko lana, sei illebeta kosta. Ezer ez ikasteko...

Soldauskan pasatakoak etziran obeak izan...

Gaxotu ziñan artan, berriz, sendagillea erdalduna. Aren aurrean, beia beterinarioren aurrean bezela ikusten zenduan zeure burua...

Eta zure aitaren eriotz aurretik gertatuak? Nola konpondu notario erdaldun arekin?

Ziñera ba'zoaz, erderaz.

Periodikuak, erderaz.

Trenen txartela ateratzeko ere, erderaz.

Donosti'ko kale baten berri jakin nai badezu, erderaz...

— "Ez bai du ezertako balio...!"

* * *

Zu asitzeko eraman dituan nekeak ama zaarra ondatu dute; ez da ezertarako gauza...

Jo mazo batekin eta garbitu zazu, "ez bai du ezertako balio...!"

* * *

"Euskara, irten adi plazara!"

Ori zan atzoko irrintzia.

"Euskera, sartu adi ikastoletara!"

Au bear du izan gaurko irrintzia.

Ume euskaldunari emaiogun euskeraz kultura eta ikasi beza gañetik erdera. Orduan jarriko ditugu gure umeak Euskera maitatzeko bidean.

Beste bideetatik alperrik edo gabiltzala deritxot.

Gaurko egunetan (negargarria benetan) euskaldunak bere etxean Euskerakin bakarrik, eragospenak eta estorbuak besterik ez du billatzen.

Gauza orrela izan da, arritzekoa al da gure baserritar askoren irteera negargarria?

Ez dituzte beurok erru guztiak.

Ez, orixe!